

# EKAITZ MAIZ

## SENTSAZIOEI JARRAITUZ

Ekaitz Maiz (Iruña, 1979), eskalatzailere eta alpinista nekazina. Ekipatzaile emankorra izateaz gain, eskaladaren hainbat arlotan 25 urte baino gehiago daramatza punta puntako jarduerak eginez. Bere ezaugarrien artean polibalentzia eta mendiarekiko duen jarrera eta baloreak aipa daitezke. Bere hitzetan, mendi-jarduerak egiteko nahiago ditu toki basati eta bakartuak.

### TESTU ETA ARGAZKIAK



Ioritz Gonzalez Lertxundi  
(Azkoitia, 1980)

Biologian lizentziatua eta irakaslea. Kirol eskaladazale amorratua, 25 urte baino gehiagoko esperientziarekin. Eskaladaren iguruan ikerketan aritu izan da. Pyrenaicako erredakzioko kidea da.





Ekaitzek gaztetatik erakutsi izan du mendiarekiko grina handia, etxean bertan txikitatik jasotako zaletasuna. Goi mailako eskalatzaile eta alpinista, hainbat jarduerengatik sariak ere jaso izan ditu, Euskal Mendi Federazioaren eta FEDMEren (Espainiako mendi eta eskalada federazioa) eskutik beste batzuen artean. Kirol eskaladan esaterako, 9a mailako bideak edo bistaz zenbait 8b egitea erdietsi izan du.

Honetaz gain, Etxaurin hazi eta hezitako eskalatzaileak jada 600 kirol eskalada bide baino gehiago ditu ekipatuak, batez ere Etxaurin bertan eta bere inguruetan. Bere sinadura daramate internazionalki ezagunak egin diren "Begi puntuan" (9a) edo "Bizi euskaraz" (8c+) bideek esaterako. Azken honek adibidez, kirol

Ekaitz Margalefeko *Meconi* bidean 8a · ARGAZKIA Bru Bussom



eskaladaren historian bere izen propioa du, bistaz egin zen munduko lehenengo 8c+ mailako bidea baita hain zuzen. Patxi Usobiagaren eskutik iritsi zen marka hau, eta ezin utzi aipatu gabe bideak duen izen adierazgarriaz gain, bi euskal eskalatzaile hauen izena kirol eskaladaren historian jasoa utzi duela. Aipaturikoak eskalatzaile naparrak kirol eskaladari eginiko ekarpenaren zertzelada batzuk baino ez dira, eta beraz, esan daiteke Ekaitzek kirol honi egindako aportazioa oso gutxiren eskura dagoen marka dela.

## Etxaurin hazi eta hezitako eskalatzaileak jada 600 bide baino gehiago ditu ekipatuak, hauen artean batzuk internazionalki ezagunak

Bestalde, eskaladaren beste arlo batzuetan ere goi-mailan aritzen da, horma handietan esaterako. Igoera batzuk aipatzearren, Dolomitetan Labaredoko gailur haundiaren Iparreko "Hasse Brandler", Grandes Jorasesetako "Mitcho" eta "Walker espoloia", Petit Druko Iparra, Pirineoetan berriki errepikatutako "Ilusiones" bidea, neguan eginiko Vignemaleko Diedro horia, edota Montrebein eginiko "Despertaferro" edo "Miedo a Volar" azpimarra genitzake beste batzuen artean.

Badirudi gainera Ekaitz ez dela inguruan duenarekin soilik konformatzen den horietakoa. Aipatutako guztiaz gain eta bere abenturarekiko zaletasun grinari jarraituz, ez da eskalada hutsarekin asetzen. Horma handietan bide berriak irekitzen ere aritzen da. Hona hemen zabaldu izan dituen bide esanguratsuenetako batzuk: "Askatasun taupada" (M4, A3, 6a, Thalay Sagar), Pic du Cascaden berriki kateatutako "Bizi bizitza" (8b, 310m), Marboreko dorrean "Agur eta Ohore" (8a, 300m), "Nafarroa bizirik" (8b, 250m) eta neguan zabaldutako "Izarren hautsa" (7a, 300m), Atxeritoko hegoan "Iraultza gorria" (8b, 200m), Ansabereko orratzetan "Borrokan aske" eta "Amalur", biak 8a mailakoak edo berrikiago Punta Taxerasen "Koliseum" bidea (M10, A3, W15, 380m).

## Munduan zehar hainbat horma entzutetsutan goi-mailako jarduerak egin izan ditu, Pirinioetan, Grandes Jorasesetan, Dolomitetan, Himalayan, Eigerren, edo Karakorumen besteak beste

Bestalde, munduan zehar bidaiatzea ere oso gustoko du. Mendiko jardueren aitzakia leku berriak ezagutzeko eta bidaiatzeak dakarren aberastasuna bereganatzeko ere baliatu izan du. Esaterako, Australian, Himalayan, Karakorumen, Ukrainian, Dolomitetan, Marokon, Norbegan, Patagonian, Perun, Estatu Batuetan, edo Canadian eskalatu du besteak beste. Beraz, esan dezakegu mendizale bidaiari eta eskalatzaile emankor bezain nekaezina dela.

Bere jardueren artean aipaturikoez gain beste hainbeste edo gehiago zerrenda genitzake, baina luze joko liguke. Informazio gehiago nahi izanez gero, eskuragarri daude egiten dituen jarduera guztiak bere web orri propioan <http://www.ekaitzmaiz.com>. Oraingo honetan Ekaitzekin izan gara azken hilabeteetan egin dituen jardueretan sakontzeko asmoz.





Ekaitz Bizi Bizitza bidean, 310m 8b. Pic Du Cascade Orientale 3161m

### Egun, zein jarduera, eskalada edo proiektutan zabilta murgildurik?

Zorionez eta ohi dudan bezela, proiektu asko ditut buruan. Ze haizek jotzen duen arabera, bati edo besteari ekiten diot.

Irailak 12an, azken urteetan buruan izan dudan proiektu bat erdiestea lortu nuen Pablo Escuderekin. "Bizi Bizitza" (8b, 310m) Pic Du Cascade Orientalen, 3161m. Bidea Asier Lukerekin zabaldu nuen 2015ean eta pareta eskalatzeko izaten den epea oso urria dela eta, 2020 arte itxoin behar izan dugu puntu gorria sinatzeko.

Nire ustez Pirineoetan zabaldu eta egin dudan biderik polit eta zalantzarik gabe, gogorrena da. Asierrek 2018an utzi gintuen eta sentipen bereziak sortarazten dizkit horrek, tristezia, harrotasuna eta poza aldi berean.

Bertara iristea ez da batere erreza eta faktore asko izan ohi dira jokoan. Col du Tentetik 5 orduetara dago. Pilatuta dagoen elurrak bidea eta pareta busti edo hurbilketa zailtzen du, altuerak ere bere eragina du, eta urrian jada hotz handiegia egin ohi du eskalatzeko...

Kirol eskaladan uda guztian zehar ibili ondoren, nere %200a emanda kateatzea lortu nuen. Ez nuen nere aukeretan batere ziurtasunik, baina batzuetan baldintzek, gorputzak eta buruak bat egiten dute, eta azkenik kateatzea iritsi zen. Esan bezala, faktore askok eragiten dute, hori dela eta ezin sinistuta nabil.

Bestalde, uda hasieran, Nacho Merino eta Ruben San Martinekin Vignemaleko "Ilusiones" bidea errepikatu genuen. 12 urte zeramatzan zabalik eta errepikatu gabe zegoen. Ez ginen harritu, inoiz eskalatutako biderik arriskutsu eta esposatuena izan baitzen. Ez da atsegina izaten norbere burua hainbeste denbora muturrekoak diren egoeretan ikustea.

Aurrera begira berriz, uda-udazken hontarako badituz proiektu batzuk esku artean, esterako Pic les Tourettesen zabalduko bidea kateatzea edo Pic d'Ansaberen erdizka dugun bidea bukatzea.


Baina ziur hoi artean, beste gauza asko aterako direla.

Esan bezela, segun eta ze haizek jotzen duen, norekin elkartzen naizen...

### Noiz hasi zinen zure eskalada eta ekipamendu jarduerekin?

Ba eskalatzan nere aitaren eskutik hasi nintzen 12 urte nituela.

Ekipatzen 14 urterekin Juanjo Iriarteren eskutik.





Garai haietan eskalatzaile gehienak ekipatzen ibiltzen ziren eta erreza zen giro horretan murgiltzea. Ni ere orduan hasi nintzen eta geroztik ez naiz gelditu.

**Eskalada munduan zein motatako jarduerak egin ohi dituzu? (Kirol eskalada, bide luzeak, ekipamenduak, izotza...). Nola uztartzen dituzu jarduera mota ezberdin hauek hain maila altuan mantentzeko?**

Lehen aipatu dizudan bezela, jotzen duen haizearen arabera eta bidean elkartzen naizen lagunaren arabera izaten dira saiatu edo egiten ditudan jarduerak.

Ez ditut toki jendetsuak atsegin eta erreza da toki edo paretara berri batera joateko ni "engainatzea".

Nola uztartzen ditudan?

Oso erreza da, gogoak agintzen du, baldintza onak daudenean gogoia pizten da eta haren aginduari jarraitzea besterik ez dago.

Bai kirol eskaladan, bai paretetan, edota izotz eskalada edo alpinismoan ere...

Aurten Bhagirathi III-ra joatekoak ginen eta Covid19aren afera dela eta bertan behera utzi genuen. Baina hegaldiaren dirua galtzeaz gain, ez da ezer gertatu. Beste proiektu batzuei ekin eta poz-pozik. Gogoia eta sasoia daukagun bitartean, ez gara etxean geratzekoak.

**Kirola eta aisialdiaz gain, zer esango zenuke eskaintzen dizu-tela jarduera hauek pertsona moduan?**

Mendiko jarduerak sarritan gure gaitasunaren muturreraino garamatzate, jarduera luzeak, arriskua, elkarbizitza... gure sakoneko sentimenduak azaleratzen dira une horietan. Jakina, bizipen hauek pertsonaren izaeraren eragina dute, onerako zein txarrerako. Baina denborarekin, pixkanaka bada ere, egoera horiek kudeatzen ikasten da.

Agian politena izan daiteke inoiz ez dakizula mendian zer aurkituko edo gertatuko zaizun. Ezustekoak izan ohi dira gutxienean espero duzunean eta bizitzaren beste arloetan bezela, ezusteko horiei aurre egiterakoan azaltzen da bakoitzaren benetako izaera.

Hori bai, mendiko haizea luzaroan sentitu ezean, nire umorea eta izaera baldintzatzen dira. Sentsazio horien beharra dut gizaki moduan orekatuta egoteko.

**Zure hastapenetako jarduera, anekdota edo oroitzapen bereziren bat?**

15 edo 16 urte nituela sarritan joaten ginen Arboliko aterpera Prades mendizerran eskalatzerara. Bertan oso giro atsegina zegoen, euskaldun asko elkar topatzen ginen eta Katalanek oso harriera ona egiten ziguten. Garai hartako oso oroitzapen onak ditut.

Bidaia horietako batean, Siuranako Can Me la Fotseko sabaietan lo egitera joan ginen aste santu batzutan eta azken momentuan lo zakua etxean ahaztu zitzaidan. Astebete egon nintzen RS baten atzeko jarlekuan kizkurtuta lo egiten... Hala ere jarrera ez zitzaigun falta!

Beste behin, Dolomitetan, Cinque Torriko "Directa cimai" bidean Goren Murilloarekin galdu egin ginen. Bide egokian berriz sartzeko, zeharkaldi bat egin behar izan nuen (bidea bera baino askoz zailagoa). Zeharkaldia erlaintz batetatik egin beharra zegoen eta mugimendu gogor bat zegoen erlaintzera iristeko. Gorenak arazoak zituela ikusi nuen, eta erori ezker, atzera salto egiteko esan nion, sokak erlaintza joz gero urratu eta hautsi egin zitekeela. Hau entzundakoan, itsutu eta blokeatu egin zen eta gehiago ezin



zuen arte iraun zuen. Beharino eroriko zela uste zuen... aurpegi zurbila kendu ezinean ibili zen denbora batez.

**Zein ezberdintasun nabarmenduko zenuke eskalatzen hasi zen garaiko Ekaitz eta oraingoaren artean? Aholkuren bat emango zenioke?**

Momentuko aholku asko emango nizkioke, baina bat esan behar banio, gauzak lasaiago hartzeko. Ziur ez zidala kasu askorik egingo... jajaja!!!

**Zure ibilbidean zehar aipamen edo oroitzapen berezia duen jarduera edo igoeraren bat? Zergatik?**

Momentu berezi asko bizi izan ditut. Highlight edo egindako jarduera aipagarrienez gain, lagunekin helburuak elkarbanatzen ditudanean esango nuke.

Asier Lukerekin batera Eigerreko "Le chant du cigne" bidean bizitakoak, Antton Zabalararekin "Agur eta ohore" bidea zabaltzen ari ginenekoak edo Asier Lukerekin Marboreko dorrean neguan "Izarren hautsa" zabaldu genuenekoak. Oso oroitzapen gozoa dakarkidate. Elkarrekin genuen motibazioa izugarri sendoa zen eta elkarren arteko armonia erabatekoa. Zailtasunak gainditzeko asko laguntzen du horrek.

**Zuretzako berezia den lekuren bat Euskal Herrian? Eta Euskal Herritik kanpo?**

Euskal herrian mendi aldean toki berezi ugari dauzkagu, mendiko kultura jaiotzetik oso barneratua daukagulako. Nerretzat Aizkorri oso toki berezia da, txikitatik gurasoekin urtero igo izan naiz.



Gehiegi luzatu gabe, urtero itzultzeko toki batzuk aipatzea-gatik, Dolomitak eta Patagonia esango nituzke. Lehenengoan 9 aldiz egon naiz. Hainbeste aldiz egoteko, nahi baino askoz eskalada gutxiago egin ditut. Bigarreanean behin bakarrik egon naiz, baina garaia iristen denean, urtero daukat itzultzeko gogo. Datorren neguan akaso...

**Azken hilabeteetan egindako jarduera esanguratsuenak?**

Zalantzarik gabe "Bizi Bizitza" bidearen zabaltzea eta kateatzea. Horretaz gain, lehen aipatutako Vignemaleko "Ilusiones" bideaz gain Canadako Rocky Mountainsera egindako bidaia azpimarratu nuke. Oso giro onean egon ginen Squamishen hasi eta Bugaboetan amaitutako bidaian.

Etxe inguruan, bide batzuk zabaldu ditut, aipagarriena 2019-ko apirilian Mikel Zabalzarekin batera bukatu genuen Koliseum bidea da 380m M10?, A3, W15.

Casque du Marboreko Hegoaldean Nacho Merino eta Felix Aznarrekin zabalduetako "Placeres Pirenaicos" (180m 7c) bidea ere azpimarratu nuke. Inoiz eskalatu ez den paretara bat aztertu eta kalitate hortako bide bat 3000 metroko gailur batean bukatzea asko betetzen nau.

Eskaldadari dagokionez, zalantzarik gabe Etxauri esango nuke. Bertan hazi naiz eskalatzailer, ekipatzaile eta mendizale bezela. 300 bide baino gehiago zabaldu ditut eta zorionez oraindik paretara asko daude urte askoz bide berriak zabaltzen jarraitzeko.

Euskal herritik kanpo toki berezi asko daude, baina tokiaz gain, bidailagunekin daukazun "armoniak" asko egiten du.

**Historikoki eskalada munduan egindako jarduerak duen garrantziaz gain, berau gauzatzeko moduari, erabilitako baliabideei eta filosofiari garrantzia handia eman izan zaio. Gaur egun zein egoeratan dagoela esango zenuke ikuspegi honetatik eskalada mundua?**

Krokisa: Eli Azurmendi







Ekaitz eta Pablo Bizi Bizitza bidean

Nire ustez, gaur egun baliabide aldetik aurrerakada handia izan da, horrek maila orokorra izugarri igo arazi du. Baina betiere maila alderdi fisikoaz ari garenean. Lehen aipatu dizudan "ilusio-nes" bideak 12 urte zeramatzan errepikapenik gabe eta nire ustez hurrengo errepikapena ez da berehala etorriko. Bide mota horrek beste zailtasun mota bat du, eta arlo horretan ez dut aurrerapenik ikusten, ez baita nola edo hala hartzeko modukoa.

Filosofari dagokionez, denetarik dago, baina orokorrean, eskalatzailer gehienak rokodromoan eskalatzuten hasten dira, horrek dakartzan balore motarekin, eskaladaren "urbanizazioa" alegia.

Zer esanik ez, bide berriak sortzerako orduan. Duela gutxi, ekipamenduei buruz lagun batekin hizketan nengoela, hurrengoa aipatu zidan: "azkenean paretetan, metro karratuoro txapa bat jarriko da eta eskalatzailerak aukeratu du zein bide egin". Tamalez hainbat tokitan joera hori dago. Ez dira bide logiko edo begitik sartzen diren "línea edo marrak" gailentzen, bideen kopurua baizik. Ez dut joera hori txarra denik esan nahi, gaur egun toki askotan gailentzen ari den joera baizik, baina bideek daukaten izaera mantendu dadin, "betiko tokietara" inoiz ez iristea espero dut.

### **Egun, zure iritziz, nola dago osasun aldetik alpinismoa eta eskalada Euskal Herrian?**

Oso osasun onean dagoela iruditzen zait, Alex Txikon, Pou anaiak edo Zabalza, Inñurategi eta Vallejoren muturreko jardueretatik hasita jende asko dabil oso jarduera onak egiten. Gazte jendea ere badator atzetik, Iker Madoz, Mikel Inoriza, Ander Zabalza edo Mikel Perez de la Raya bezelakoak.

Kirol eskaldari dagokionez, maila orokorrean mailaren gorakada nabaria da. Horretaz gain, eskalatzailer kopuruaren gorakada-

rekin, alde onak zein txarrak gehiago azalerratu dira. Baina orokorrean, oso giro ona ikusten dudala azpimarratuko nuke.

Aipagarria iruditzen zaidan beste eskalatzailer mota bat, rokodromoetan soilik eskalatzuten duen jendea da. Gero eta gehiago omen dira eta nere ustez geratzeko etorri dira.

### **Identifikatua sentiarazten zaituen esaldi edo lemaren bat?**

Ez naiz esaldi "lapidarioak" bere egiten dituzten horietakoa. Esaldia edo lema baino, sententzia batzuekin identifikatuago sentitzen naiz. Bakoitzak bere momentua izaten du, sabeleko tximelak dantzan jartzen direnean edo zeruko lainoak iluntzen hasten direnean bezela. Zeozer esatekotan, sententzietan jarraituz esango nuke.

### **Galdetutakoaz gain aipatzea nahiko zenukeen zerbait?**

Sare sozial eta internet bidezko informazio saturazioak mendi eta eskaladan daukan eragina aipatuko nuke. Informazio saturazioaren garaietan bizi garela uste dut. Sare sozialetan jarri ezean, jarduerarik egin ez dela dirudi eta ohartzen naiz ni neu ere joku horretan murgilduta nagoela. Neurri egokian, gogoia sortu eta lagun edo helburu berriak izateko balio dute, baina "neurri egokia" hartzean dago koxka.

Badaude masifikazioa dela eta itxitako zonaldeak, Cuencako Valdecabras zonaldea da horren adierazgarri. Sare sozialek zonalde hori "modan" jartzen lagundu zuten, eta masifikazioaren ondorioz jabeak zonaldean eskalada debekatzea erabaki zuten.

Maila txikiago batean badaude etxetik gertuago hainbat kasu. Kontu handia izan behar da eskaladako guneen jabe, biztanle eta erabiltzaileen artean oreka egon dadin.